ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Immigrazioari Begirada

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA · DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

2017ko maiatza
Lege gordailua BI-1163-05

IMMIGRAZIOAREN Euskal Behatokia ● Observatorio Vasco de INMIGRACIÓN

65 zbk.

ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLERIA EAEn 2017

Begirada honen bidez, 2016ko abuztuko 62. Begiradaren edukia eguneratu dugu; orduko hark 2016ko urtarrilaren 1ean EAEn erroldatutako atzerritar jatorriko biztanleen kopurua jasotzen zuen (behin-behineko datuak).

Migrazio-fluxuak moteldu egin diren arren, aurten ere Euskadik jatorri atzerritarreko biztanleriaren hartzaile izaten jarraitzen du. Era berean, 2017an sendotzen ari da azken urteotako joera, eta hala, Latinoamerikako biztanleen eta emakumeen ehunekoa, oro har, gora egiten ari da.

1. Biztanleen udal-errolda. Ikuspegi orokorra

1. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera EAEn eta lurralde historikoetan. 1998-2017



	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
EAE	1,3	1,4	1,7	2,1	2,6	3,2	3,7	4,4	5,1	5,7	6,6	7,3	7,7	8,0	8,4	8,4	8,3	8,4	8,6	8,9
Araba	1,6	1,7	2,1	2,7	3,6	4,4	4,9	5,9	6,5	7,4	8,5	9,5	10,2	10,4	10,9	10,5	10,4	10,5	10,5	10,9
Bizkaia	1,4	1,5	1,7	2,1	2,6	3,1	3,5	4,2	4,9	5,5	6,3	7,0	7,3	7,6	8,0	8,0	7,7	7,8	8,0	8,3
Gipuzkoa	0,8	1,0	1,4	1,8	2,3	2,9	3,4	4,2	4,7	5,3	6,3	7,0	7,3	7,5	7,9	8,1	8,3	8,5	8,8	9,1

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

Gaur egun, erroldako behin-behineko datuen arabera, 2017ko urtarrilaren 1ean 7.373 atzerritar gehiago bizi ziren EAEn aurreko urtean baino; guztizko datuak kontuan hartuta, 195.969 ziren EAEko atzerritar jatorrikoak; hau da, EAEko biztanleriaren % 8,9. Lurralde Historikoei erreparatuz gero, Araba da gaur egun ere atzerritar jatorriko biztanleen ehuneko handiena duena (% 10,9); ondoren, Gipuzkoa (% 9,1) eta Bizkaia (% 8,3). (1. grafikoa).

Atzerritar jatorriko biztanleria lurraldeka nola banaturik dagoen aztertuz gero (1. taula), Bizkaia da gaur egun ere atzerritarren bolumen handiena duena (% 48,6), eta ondoren datoz Gipuzkoa (% 33,4) eta Araba (% 18,1). Sexuaren arabera, atzerritar jatorriko biztanleen erdia baino zertxobait gehiago (% 52,3) emakumea da. Bizkaian ehuneko hori handiagoa da (% 53,2), Gipuzkoan % 52,2koa, eta Araban, % 50,3koa. Banaketa horrek, neurri handi batean, atzerritarren jatorriarekin eta haien profilarekin du lotura: Bizkaian

1. taula. Atzerritar jatorriko biztanleria EAEn, sexuaren eta lurralde historikoen arabera. 2017

	Guztira	Gizonezkoak	%	Emakumezkoak	%	Urtez urteko hazkundea
Espainia	6.160.458	2.994.644	48,6	3.165.814	51,4	0,6
EAE	195.969	93.433	47,7	102.536	52,3	3,9
Araba	35.463	17.623	49,7	17.840	50,3	4,6
Bizkaia	95.146	44.567	46,8	50.579	53,2	3,8
Gipuzkoa	65.360	31.243	47,8	34.117	52,2	3,7

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

gehiago dira latinoamerikarrak; Araban, aldiz, magrebtarren ehunekoa handiagoa da. Nolanahi ere, azken urtebetean erroldatutako pertsona gehienak Latinoamerikakoak dira jatorriz, eta, hein handi batean, emakumeak. Hori dela eta, azken urtebetean hazi egin da emakume atzerritarren ehunekoa hiru lurraldeetan.

Nolakoa izan da EAEko bilakaera gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta? Ondoko 2. grafikoak erantzuten dio galdera horri, eta erakusten du 2017an arinki hazi dela (0,3 puntutan) jatorri atzerritarreko biztanleriaren portzentajea, biztanleria osoaren % 8,6a izatetik % 8,9a izatera pasa da, hain zuzen ere. Gorakada handiagoa izan du Kataluniak (0,4 puntukoa), 2016an % 17,2 izatetik aurten % 17,6 izatera igaroz.

Kopuru absolutuetan, EAEn eman den gorakada 7.373 pertsonatakoa izan da, hau da, 2016an jatorri atzerritarreko 188.596 pertsona izatetik, 2017an 195.969 izatera igaro da. Hazkunde honek zera suposatzen du: atzerritar jatorriko biztanleria % 3,9a hazi dela urtetik urtera, portzentaje hau krisiaren aurreko garaietan emandako ehunekoak baino nabarmenki baxuagoa izanez. Hazkunde hori Estatu osoan izan denarekin (% 0,6) eta gainerako autonomia-erkidegoetakoarekin alderatuta, Euskadi da estatu osoan gehien hazi den erkidegoa; ondoren datoz Katalunia (% 2,8) eta Nafarroa (% 2,5).

2. grafikoa. Atzerritar jatorria duten biztanleen portzentajea Espainiako autonomia-erkidegoen arabera eta aurreko urtearekiko aldea. 2017 (%)



Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

Baina, zer eragin izan dute atzerritar jatorriko biztanleek dinamika demografikoan? 2. taulako datuek erantzuten diote galdera horri, eta erakusten dute eragin hori positiboa izan dela. Alde horretatik, 1998. eta 2017. urteen artean, guztizko saldoak gora egin du, eta gaur egun 94.577 pertsona gehiago daude EAEn erroldatuta. Hazkunde horren arrazoi nagusia atzerritar biztanleriaren gorakada da; hain zuzen ere,

2. taula. Bertako biztanleriaren eta atzerritar jatorriko biztanleriaren bilakaera, eta EAEko eta Espainiako atzerritarren ehunekoak. 1998-2017

	Biztanleria				Atzerrian jaiotako biztanleen %	
	EAE	Bertakoa	Atzerrian jaioak	Hazkundea	EAE	Espainia
1998	2.098.628	2.072.294	26.334		1,3	2,9
1999	2.100.441	2.071.418	29.023	2.689	1,4	3,1
2000	2.098.596	2.063.453	35.143	6.120	1,7	3,6
2001	2.101.478	2.057.655	43.823	8.680	2,1	4,8
2002	2.108.281	2.052.413	55.868	12.045	2,6	6,2
2003	2.112.204	2.044.675	67.529	11.661	3,2	7,7
2004	2.115.279	2.037.073	78.206	10.677	3,7	8,6
2005	2.124.846	2.030.818	94.028	15.822	4,4	10,0
2006	2.133.684	2.025.590	108.094	14.066	5,1	10,8
2007	2.141.860	2.019.664	122.196	14.102	5,7	11,6
2008	2.157.112	2.014.628	142.484	20.288	6,6	13,1
2009	2.172.175	2.012.538	159.637	17.153	7,3	13,8
2010	2.178.339	2.010.957	167.382	7.745	7,7	14,0
2011	2.184.606	2.009.567	175.039	7.657	8,0	14,2
2012	2.193.093	2.009.321	183.772	8.733	8,4	14,3
2013	2.191.682	2.008.399	183.283	-489	8,4	14,1
2014	2.188.985	2.007.268	181.717	-1.566	8,3	13,4
2015	2.189.257	2.005.060	184.197	2.480	8,4	13,2
2016	2.189.534	2.000.938	188.596	4.399	8,6	13,2
2017	2.193.205	1.997.236	195.969	7.373	8,9	13,2
Aldea 1998-2017	94.577	-75.058	169.635			

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

3. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleen urtetik urterako hazkunde absolutua EAEn. 1998-2017

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

1998an 15.198 atzerritar zeuden erroldatuta, eta 2017an, berriz, 195.969. Aldiz, epe horretan bertan, bertako biztanleriak 75.058 pertsonako beherakada izan du.

Demografia-egituran izandako eragin positibo hori argi eta garbi antzeman daiteke atzerritar jatorriko biztanleriaren ehunekoaren gorakadan: 1998an, % 1,3koa zen, eta 2017an, berriz, % 8,9koa da. Hala ere, EAEko gorakada hori Estatukoa baino txikiagoa izan da, denbora-tarte berean % 2,9koa izatetik % 13,2koa izatera pasa baita Estatuan.

Azken urteotako (1998-2017) urtetik urterako bilakaerari erreparatuz gero (3. grafikoa), ohartuko gara bilakaera hori desberdina izan dela denboraren joanean. Hala, hiru fase nagusi izan dira EAEko migrazio-prozesuan: Lehen fasean –2009. urtera arte– goraldi ekonomikoari loturik, biztanleria atzerritarrak gora egin zuen etengabe; bigarren fase batean, krisi ekonomikoaren eraginpean, atzerrian jaiotako biztanleen hazkundea moteldu egin zen, 2013 eta 2014. urtera arte (hor jo zuen behea, hazkundea negatiboa izan baitzen); eta hortik aurrera, 2015ean, atzerrian jaiotako biztanleria zertxobait hazten hasi zen eta halaxe gertatu da azken bi urteotan ere; beraz, azken datuek berresten dute hirugarren fase baten hasieran egon gaitezkeela.

Nazionalitate atzerritarra dutenen eta atzerrian jaiotakoen arteko aldeak EAEn

Nazionalitate atzerritarra duten biztanleak eta atzerritar jatorrikoak alderatuz gero (4. grafikoa), datuek berresten dute, beste urtebetez, atzerritar jatorriko biztanleak gehiago direla EAEn nazionalitate atzerritarra dutenak baino. Neurri handi batean, nazionalitate atzerritarreko biztanleen artean izan diren nazionalizazio-prozesuen ondorioz gertatu da hori, aurreko panoramika batzuetan azaldu izan dugun moduan.

4. grafikoa. Atzerrian jaiotako biztanleak kontuan hartuta, atzerriko nazionalitatea dutenen bilakaera EAEn. 1998-2017. (Balio absolututan)



	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Atzerrian jaiotakoak	142.484	159.637	167.382	175.039	183.772	183.283	181.717	184.197	188.596	195.969
Nazionalitate atzerritarra	117.337	132.865	139.369	145.256	151.894	148.877	141.316	137.816	139.425	142.392

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

2. Jatorria

Etorkinen jatorrizko herrialdearen araberako bilakaeraren analisiak bi gauza erakusten ditu: batetik, EAEra iristen diren migrazio-fluxuen aniztasuna; eta, bestetik, atzerritar biztanleriaren osaeran jatorrizko nazionalitate-eremuek duten pisua. Horren harira, 4. grafikoan ohar gaitezke EAEko atzerritar biztanleriaren osaera aldatuz joan dela, baina joera argia izan dela: Latinoamerikako biztanleak dira gehienak (% 46,7), eta ondoren, EBn jaiotakoak (% 19,5) eta Magreben jaiotakoak (% 14).

Bilakaerari erreparatuta, azken urteetan jatorri nagusien hazkundeak zer gorabehera izan dituen kontuan hartuz gero (6. grafikoa), berretsiko dugu Latinoamerikako biztanleen ehunekoa hazi dela gehien azken urtean. Hain zuzen ere, azken urtean erroldatutako pertsonen kopurua kontuan hartuta (7.373), gehiengoa latinoamerikar jatorrikoa da (% 70), eta, oro har, emakumea (% 61,5). Jatorri magrebtarra duen biztanleriaren pisua gelditu egin da, izan ere, 2013. urtetik lehen aldiz hamarren bat egin du behera –% 14,1 izatetik % 14 izatera igaro da–.

5. grafikoa. EAEko atzerritar jatorriko biztanleriaren osaera eremu geografikoen arabera. 1998-2017



Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

6. grafikoa. Jatorri nagusien urtetik urterako hazkundearen bilakaera. 1999-2017



Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

3. Jatorri-herrialde nagusiak

Jatorrizko herrialdearen arabera, gaur egun marokoarrak, kolonbiarrak eta errumaniarrak dira atzerritar gehienak (4. taula). Eta hamar garrantzitsuenen atean Latinoamerikako sei herrialde daude –Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Nikaragua, Brasil eta Paraguai–, EBko hiru –Errumania, Portugal eta Frantzia– eta Afrikako bat –Maroko–.

Azken urtebetean, atzerritar biztanleriaren hazkundea (7.373 pertsona) batez ere Latinoamerikako jatorrikoen artean gertatu da, eta zehatzago, Honduras, Nikaragua, Venezuela, Paraguai eta Kolonbiatik iritsitakoen artean, baita Marokotik etorritakoen artean ere (3. taula). Azken urtean gehien hazi diren Latinoamerikako jatorriak aztertuz gero (atzerrian jaiotakoak eta atzerritar nazionalitatekoak), datuek erakusten dute gora egin dutela bai atzerrian jaiotako biztanleen kopuruak bai atzerritar nazionalitatea dutenenak ere. Horrek adierazten du pertsona horiek zuzenean jatorrizko herrialdetatik datozela eta ez beste autonomia-erkidego batzuetatik, aurreko urteetan, krisiaren eragina nabarmenagoa zenean, gertatu zen moduan.

Lurralde Historikoen arabera ere badira aldeak: Bizkaian, Kolonbiatik iritsitakoak dira atzerritar gehienak, eta ondoren datoz Errumaniatik eta Boliviatik heldu direnak. Azken urtebetean, nikaraguar eta kolonbiar jatorrikoen hazkundea izan da handiena Bizkaian. Araban, berriz, Marokotik, Kolonbiatik eta Aljeriatik iritsitakoak dira atzerritar gehienak, eta azken urtebetean gehien hazi direnak, berriz, Maroko, Kolonbia eta Venezuelatik iritsitako herritarrak izan dira. Gipuzkoan, azkenik, Marokotik iritsitakoak dira atzerritar gehienak, eta ondoren, Errumaniatik eta Nikaraguatik heldutakoak; azken urtebetean gehien hazi diren jatorriak, berriz, Nikaragua eta Honduras izan dira.

Jatorri nagusiaren edo nazionalitatearen arabera biztanleria nola banatzen den aztertuz gero (5. taula), zenbait alde ikus ditzakegu. Alderik handienak Latinoamerikako biztanleen artean sortzen dira; izan ere, gehiago dira latinoamerikar jatorrikoak Latinoamerikako nazionalitatea dutenak baino, haien artean asko eta asko nazionalizatu egin direlako.

3. taula. Azken urtean gehien hazi diren jatorriak (urtetik urterako hazkundea) eta nazionalitatea

	Atzerrian jaiotakoak				Nazionalitate atzerritarra			
	2016	2017	Aldea 2016-2017		2016	2017	Aldea 2016-2017	
	K	K	K	%	K	K	K	%
Honduras	3.566	4.275	709	19,9	3.281	3.793	512	15,6
Nikaragua	6.077	7.183	1.106	18,2	5.845	6.763	918	15,7
Venezuela	4.623	5.238	615	13,3	1.821	2.219	398	21,9
Paraguai	5.586	6.027	441	7,9	5.073	5.276	203	4,0
Kolonbia	17.150	18.216	1.066	6,2	5.732	6.238	506	8,8
Maroko	20.290	21.345	1.055	5,2	19.849	20.463	614	3,1

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

4. taula. Hamar jatorri nagusiak EAEn. 2001, 2004, 2008, 2010, 2012, 2014, 2016 eta 2017

2001	
Guztira	43.823
Frantzia	5.456
Portugal	4.174
Maroko	3.515
Kolonbia	3.403
Alemania	2.041
Argentina	1.945
Kuba	1.817
Brasil	1.723
Venezuela	1.692
Erresuma Batua	1.441
Guztira 10	27.207
Gainerakoak	16.616
Gainerakoak %	37,9

2004	
Guztira	78.206
Kolonbia	9.687
Ekuador	7.083
Maroko	6.333
Frantzia	5.845
Portugal	4.992
Argentina	4.298
Errumania	2.781
Brasil	2.688
Venezuela	2.464
Kuba	2.294
Guztira 10	48.465
Gainerakoak	29.741
Gainerakoak %	38,0

2008	
Guztira	142.484
Kolonbia	14.750
Errumania	12.515
Bolivia	11.724
Maroko	10.964
Portugal	9.475
Ekuador	8.349
Frantzia	6.668
Brasil	5.841
Argentina	5.763
Venezuela	3.687
Guztira 10	89.736
Gainerakoak	52.748
Gainerakoak %	37,0

2010	
Guztira	167.382
Kolonbia	17.295
Maroko	14.667
Errumania	14.378
Bolivia	11.994
Portugal	9.905
Ekuador	9.347
Brasil	6.697
Frantzia	6.599
Argentina	6.058
Paraguai	4.639
Guztira 10	101.579
Gainerakoak	65.803
Gainerakoak %	39,3

2012	
Guztira	183.772
Kolonbia	18.137
Maroko	17.334
Errumania	16.158
Bolivia	11.794
Ekuador	9.336
Portugal	9.002
Brasil	6.569
Frantzia	6.462
Argentina	5.910
Paraguai	5.597
Guztira 10	106.299
Gainerakoak	77.473
Gainerakoak %	42,2

2014	
Guztira	181.717
Maroko	18.165
Kolonbia	17.494
Errumania	15.370
Bolivia	11.191
Ekuador	8.681
Portugal	7.970
Frantzia	6.244
Brasil	5.875
Argentina	5.557
Paraguai	5.351
Guztira 10	101.898
Gainerakoak	79.819
Gainerakoak %	43,9

2016	
Guztira	188.596
Maroko	20.290
Kolonbia	17.150
Errumania	15.409
Bolivia	11.019
Ekuador	8.367
Portugal	7.110
Nikaragua	6.077
Brasil	5.961
Frantzia	5.955
Paraguai	5.586
Guztira 10	102.924
Gainerakoak	85.672
Gainerakoak %	45,4

2017	
Guztira	195.969
Maroko	21.345
Kolonbia	18.216
Errumania	15.451
Bolivia	11.156
Ekuador	8.393
Nikaragua	7.183
Portugal	6.952
Brasil	6.202
Paraguai	6.027
Frantzia	5.919
Guztira 10	106.844
Gainerakoak	89.125
Gainerakoak %	45,5

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

5. taula. Atzerrian jaiotakoak eta nazionalitate atzerritarra dutenak EAEn, herrialde nagusien arabera. 2017

	Jaiotza			Nazionalitatea	
1	Maroko	21.345	1	Maroko	20.463
2	Kolonbia	18.216	2	Errumania	17.819
3	Errumania	15.451	3	Nikaragua	6.763
4	Bolivia	11.156	4	Bolivia	6.684
5	Ekuador	8.393	5	Portugal	6.301
6	Nikaragua	7.183	6	Kolonbia	6.238
7	Portugal	6.952	7	Txina	5.528
8	Brasil	6.202	8	Paraguai	5.276
9	Paraguai	6.027	9	Aljeria	5.026
10	Frantzia	5.919	10	Pakistan	5.025
11	Argentina	5.512	11	Nigeria	4.401
12	Txina	5.389	12	Brasil	4.259
13	Venezuela	5.238	13	Senegal	4.121
14	Aljeria	5.097	14	Honduras	3.793
15	Peru	4.992	15	Ekuador	2.356
16	Pakistan	4.875	16	Italia	2.330
17	Senegal	4.332	17	Ukraina	2.244
18	Honduras	4.275	18	Venezuela	2.219
19	Dominikar Errepublika	4.236	19	Peru	1.833
20	Kuba	3.901	20	Frantzia	1.830
21	Nigeria	3.348	21	Argentina	1.735
22	Ukraina	2.552	22	Dominikar Errepublika	1.705
23	Alemania	2.366	23	Kuba	1.498
24	Mexiko	2.090	24	Erresuma Batua	1.469
25	Txile	2.003	25	Alemania	1.140
26	Erresuma Batua	1.977	26	Bulgaria	1.016
27	Errusia	1.892	27	Kamerun	881
28	Amerikako Estatu Batuak	1.564	28	Amerikako Estatu Batuak	881
29	Italia	1.401	29	Txile	857
30	Ekuatore Ginea	1.381	30	Ghana	850
	Gainerakoak	20.704		Gainerakoak	15.851
	Guztira	195.969		Guztira	142.392

Iturria: EINen datuak oinarri hartuta egin da.

4. Ondorioak

Laburbilduz, datuen argitan badira nabarmentzeko zenbait joera: 2017an atzerritar jatorriko 7.373 pertsona gehiago erroldatu dira EAEn, eta, horrenbestez, guztizko biztanlerian hazi egin da atzerritar jatorrikoen ehunekoa, 2016ko % 8,6tik gaur egungo % 8,9ra.

2017an, itxuraz, berretsi egin da krisi ondorengo egoera, bai 2015ean bai 2016an jada antzematen hasi zena. Atzeraldi ekonomikoaren garaian, fluxuak nabarmen moteldu ziren; areago, zenbait unetan, atzerritarren kopuruak behera egin zuen, baina 2014. urtetik aurrera, eta batez ere 2015ean, datu makroekonomikoak hobetzearekin batera, fluxuen joera gorantz egiten hasi zen berriro, ez oparoaldi ekonomikoan bezain argi, baina bai atzeraldi ekonomikoa indarrean zen urteetan baino nabarmenago.

Era berean, jatorriari erreparatuz gero ere, zenbait aldaketa hautematen dira. Esate baterako, krisi ekonomikoaren garaian Latinoamerikako biztanleen etorrera moteldu egin zen, eta haien ehunekoa txikitu egin zen EAEko atzerritar jatorriko etorkinen artean; eta uneotan, berriro ere jatorri hartako biztanleen fluxuak dira dinamikoenak –aurreko oparoaldian gertatu zen moduan– eta, horren ondorioz, feminizaziotasa aurreko urteetakoa baino handiagoa da.

Latinoamerikako pertsonen hazkundearekin batera, magrebtar jatorriko etorkinena moteldu egin da (atzeraldi ekonomikoaren urteetan hazi egin zen).

Laburbilduz, EAEko migrazio-fluxuei dagokienez, 2000ko hamarkadako oparoaldian nabarmenak ziren zenbait ezaugarri eta antzekotasun antzeman daitezke berriro ere, eta, aldi berean, krisi garaiarekiko alde nabarmenak ere bai. Hala, atzerritik datozen fluxuak handitu egin dira, eta Latinoamerikatik iritsitako emakumeen ehunekoak aurreko zenbait unetan izan zuen garrantzia hartu du berriro.

EAEko migrazio-fluxuen
JOERAK

Fasea	Fluxuen intentsitatea	Fluxuen jatorri-eremuak	Nondik datozen
1 **Oparoaldi** Ekonomikoa 2009ra arte	**Oso handia**	↑ Latinoamerika ↑ Europar Batasuna	Jatorrizko herrialdeak
2 **Krisi** Economikoa 2010-2014	**Moteltzea**	↓ Latinoamerika ↑ Magreb ↑ Asia	Beste AA. EE.
3 **Suspertze** Ekonomikoa 2015etik aurrera	**Berreskuratzea**	↑ Latinoamerika = Magreb	Jatorrizko herrialdeak Beste AA. EE.

ikuspegi
Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsulta ezazu gure web orria:
www.ikuspegi.eus

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk:
– **Dokumentazio zentrua**: kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailegua eskeintzen ditu.
– **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:
Tlf.: 94 601 82 75
Fax: 94 601 82 78
e-mail: info@ikuspegi.eus

Pertsonalki helbide honetan aurki gaitzakezu:
Liburutegi Zentraleko Eraikina, 6. pisua, UPV/EHU
Sarriena Auzoa, z/g. 48940 Leioa (Bizkaia)

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO